



**ORIO**  
marea bizian

| Zaintza

# ORIOKO ZAINITZA-EKOSISTEMA

## Abiapuntua

Zaintza gure bizitzen oinarria da, ongizatea eskaintzen diguna, inguruarekin elkarlotzen gaituena.

Baina etxeko hormen atzean gordetako errealitatea da, ezkutuan mantendu dena. Ahaztu egiten zaigu guztiok behar dugula zainduak izan, eta hortaz, denok zaindu behar ditugula besteak. Hala ere, **zaintzak ez gaitu denok berdin zeharkatzen.**

Orioko Udalak sukaldetik plazara ekarri nahi du zaintzen gaia, eta herriaren erdigunean jarri: **gaur egungo eredua irauli eta herri zaintzaile bihurtuko dugu Orio.**

Horretarako, **herriko zaintza-eredua aztertze**ko prozesua abiatu dugu, **Matia Fundazioaren eta Emagin elkartearen eskutik**, diagnostiko parte-hartzaile bat egiteko. Eta, hortik abiatuta, plan estrategikoa diseinatuko dugu.

**EUSKARRI  
HAUETAN IKUS  
DITZAKEZU:**

Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo duten herritarren datuak, Matia Fundazioak egindako ustiaketarekin.

Zaintzari lotuta, Emagin elkarteak prestatutako galdetegian jasotako erantzunen lagin bat.

Izan ere, herritar guztiek ez dute Gizarte Zerbitzuetara jotzen, eta era pribatuan (familiar, ingurukoekin...) egiten diote aurre zaintzari.

## Elkarrekin egingo diogu aurre erronka eraldatzaile honi!



SEGI ERAKUSKETAREN NORANZKOA,  
ETA BUKAERAN, **IDATZI ZURE GOGOETAK.**

[orio.eus](http://orio.eus)







**ORIO**  
marea bizian

Zaintza

# ORIOKO ZAIN-TZA-EKOSISTEMA

## Mendekotasun-egoeran dauden herritarren profila

Mendekotasun-egoeran dauden herritarren gehiengoa (% 79) ez dago larritasun-egoeran, eta horrek baldintza aproposak eskaintzen ditu esku-hartzeko eta egoera iraultzeko.

Zaintzen unibertsoa oso feminizatuta dago, bai hartzaileei eta baita zaintzaileei dagokienez.

Orion

**205**

herritar daude mendekotasun-egoeran.

**% 61**

EMAKUMEZKOAK DIRA.

**% 79**

LEHEN ETA BIGARREN MENDEKOTASUN-GRADUETAN DAUDE.

**% 98**

BERTAKOAK DIRA.

### MENDEKOTASUN-GRADUAK

#### 1. GRADUA.

##### MENDEKOTASUN ARINEKO EGOERA

Pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera jakin batzuk egiteko (garbitzea, jatea, erostera joatea, eta abar), edo tarteka laguntza behar du autonomia pertsonalerako.

#### 2. GRADUA.

##### MENDEKOTASUN LARRIKO EGOERA

Pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera asko egiteko edo autonomia pertsonalerako, nahiz eta ez duen behar zaintzaile baten etengabeko laguntza.

#### 3. GRADUA.

##### MENDEKOTASUN HANDIKO EGOERA

Pertsonak erabat galdu du autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala, eta zaintzaile baten etengabeko laguntza behar du ezinbestean; edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalerako.



### GOGOETARAKO GALDERAK

Nola eragiten du mendekotasun-egoeran dauden herritarren profilak zaintza-ereduan?

Zaindutako pertsonen generoak eta jatorriak nola eragiten dio zaintzaileen profilari? Eta haien arteko harremanari?






# ORIOKO ZAINITZA-EKOSISTEMA

## Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak eta laguntzak





**% 18  
EGOITZA**

|                                                                                     |                                                                |
|-------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|
|  | 24/7 zabalik.                                                  |
|  | Herritik kanpo, ohiko ingurunetik, lagunengandik... aldentuta. |
|  | Profesionalak, egoitzako langileak.                            |



**% 10  
EGUNEKO  
ZENTROA**

|                                                                                     |                                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
|  | Egunean 6 ordu.                     |
|  | Orion bertan, ohiko ingurunean.     |
|  | Profesionalak, egoitzako langileak. |




**% 3  
APARTAMENTU  
TUTELATUAK**

|                                                                                       |                                                                                                      |
|---------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | 24/7 zabalik.                                                                                        |
|  | Orion bertan, Aritzaga kalean.                                                                       |
|  | Profesionalak, etxez etxeko zerbitzuko 2 langile, eguneroko otorduetarako eta astean beste bi orduz. |




**% 16  
ETXEZ ETXEKO  
ZERBITZUA**

|                                                                                     |                                                 |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|
|  | Astean, batez beste, 4,7 ordu.                  |
|  | Etxean bertan.                                  |
|  | Profesionalak, enpresa bidez kontratatzen dira. |



**% 24  
LAGUNTZA  
PERTSONALERAKO  
PRESTAZIO  
EKONOMIKOA**

|                                                                                     |                                                                                                                                           |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | Astean, batez beste, 9,5 ordu.                                                                                                            |
|  | Etxean bertan.                                                                                                                            |
|  | Profesionalak, senideek zuzenean kontratatuak edota enpresa baten bidez. Bi kasuetan, familiarekin adosten dira zerbitzuaren ezaugarriak. |



**% 29  
FAMILIA INGURUAN  
ZAINITZEKO  
PRESTAZIO  
EKONOMIKOA**

|                                                                                       |                                                                                                                                |
|---------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | 24/7 etxean.                                                                                                                   |
|  | Etxean bertan.                                                                                                                 |
|  | Senideak. Ordura arte zainzaile-lanetan aritu diren senideen artean, batek hartzen du ardura eta soldatapean hasten da lanean. |

 Zerbitzuaren orduak  Kokalekua  Zaintzaileak



### GOGOETARAKO GALDERAK

- Nola aldatzen da erabiltzaileen bizitza zaintza-zerbitzu bat ala beste erabilita?
- Zaindutako herritarren % 69k etxean jasotzen du zaintza. Zein irakurketa egiten duzu?
- Nola eragiten du senideen arteko zaintzak haien harremanetan? Zein dira argiak, eta zein ilunak?







**ORIO**  
marea bizian

Zaintza

# ORIOKO ZAINITZA-EKOSISTEMA

## Gizarte Zerbitzuen bidez ematen den etxeko arreta

Orion  
Zaindutako herritarren  
**% 69**  
etxean jasotzen du arreta



**% 42**

### FAMILIA INGURUAN ZAINITZEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

Senideen arteko zaintza-ereduan, arreta informala eta etengabea izaten da.

Nork hartzen du zaintzaile profesionalaren papera?

**% 40,4**

EZKONTIDEA/  
BIKOTEA

**% 26,3**

GURASOA

**% 22,2**

SEME-ALABA

**% 11**

BESTELAKOAK



**% 35**

### LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

Familia-eremutik kanpoko arreta jasotzen duten gehienek enpresa baten bidez kontratatutako zerbitzua jasotzen dute etxean.

Langileen **% 90** atzeritik migratutako profesionalak dira. Berriak dira Orion, ez dituzte euskara, herria eta bertako ohiturak ezagutzen, eta ez dute harreman-sarerik bertan. **% 98** emakumeak dira.



**% 23**

### ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Familia-eremutik kanpoko arreta jasotzen dutenen artean, gutxiengoa dira instituzioek eskainitako zerbitzuaren alde egiten dutenak.

Langileen **% 67** bertako profesionalak dira. **% 98** emakumeak dira.

## GOGOETARAKO GALDERAK



Zaintzaile profesionalen **% 98** emakume izateak, zein ondorio ditu familian eta gizartean? Errealitate hau aldatu behar dela uste duzu? Nola?

Etxeko zaintza-zerbitzua kontratatzen dutenen artean, zergatik egiten dute gehienek Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa jasotzearen alde? Zergatik nahiago dute etxeko zerbitzua Egoitza edo Eguneko Zentroa baino?

Herritar gehienek etxean zainduak izatea nahi badute, zein laguntza indartu beharko lukete instituzioek?







**ORIO**  
marea bizian

Zaintza

# ORIOKO ZAINITZA-EKOSISTEMA

## Gizarte Zerbitzuen bidez ematen den etxetik kanpoko arreta

**Orion**

Zaindutako  
herritarren

**% 31k**

etxetik kanpo  
jasotzen du arreta



**% 59**

### EGOITZA

Zaintza etxetik kanpo jasotzen duten gehienak egoitza batean bizi dira, Oriotik kanpo.

Ondorioz, zaindutako pertsona bere eremutik kanpo bizi da. Egoitzatik irten eta «bidaia» egin behar du senideak eta lagunak bisitatzeko, edo alderantziz.



**% 33**

### EGUNEKO ZENTROA

Orioko Eguneko Zentroak 25 erabiltzaile ditu gaur egun eta, batez beste, egunean 6 ordu egiten dituzte bertan.

Tarte horretan, zaintza afektiboan ari diren senide eta lagunek aukera dute bestela egin ezin dituzten jarduerak egiteko.



**% 8**

### APARTAMENTU TUTELATUAK

Gaur egun 5 erabiltzaile daude Orioko Apartamentu Tutelatuetan, eta itxaron-zerrenda dago.

60 urte baino gehiago dituzten eta autonomoak diren oriotarrei zuzenduta daude, beren autonomia mantentzeko aukera izan dezaten. Egonaldi luzeak izaten dira.

## GOGOETARAKO GALDERAK

Zein abantaila dituzte etxetik kanpoko zerbitzuek, eta zein alde txar?

Nola eragiten dio zaindutako pertsonari bere ingurunetik kanpo bizitzeak? Eta senideei? Eta lagunei?

Gizartean, oro har, zergatik lehenesten da etxetik kanpoko arreta, zaindutako herritarrek etxeko ereduaren alde egiten badute?







**ORIO**  
marea bizian

Zaintza

# ORIOKO ZAINITZA-EKOSISTEMA

## Gizarte Zerbitzuetatik kanpo egiten den zaintza

Zaintza ezinbestekoa da gure oinarrizko beharrak asetzeko, baina **ez da modu orekatuan egiten**.

Galdetegian jasotako erantzunek eta aurrez aurreko elkarrizketek agerian uzten duten bezala, zaintzak **hiru ezaugarri nagusi ditu**:

### FAMILIARIZAZIOA

Zaintza familia barruan egiten da, nagusiki harreman afektibo edo odoleko senideen artean.

### FEMINIZAZIOA

Emakumeak dira zaintzaile nagusiak eta haiek dute zaintzaren ardura nagusia.

### KANPOKO KONTRATAZIOA

Familia iristen ez denean, zaintzarako langileak kontratatzea da estrategia nagusia. Horien artean gehienak emakume migratuak eta arrazializatuak dira, eta haiengan uzten ari gara zaintza-sistemaren zama.

## Nola bizi dugu zaintza?

Oriotarrek emandako erantzunak:

*Bihotzetik*

*Con tesón, abnegación, humildad*

*Etxekoen artean*

*Ahal den bezala*

*Nekez*

*Nork bere burua azkena utzita*

*Con cariño*

*Eszedentzia eskatuta*

*Jardun bikoitza da*

*Txandak eginda*

*Con ilusión, esfuerzo, frustración relativa*

*Laguntzarik gabe*

*Esperientzia zaila da*

*Sakrifizioz*

*Ziurgabetasunez*

*Ezjakintasunez*

*Poliki-poliki*

*Baimenak eskatuta*

*Bakarrrik eta informaziorik gabe*

*Normaltasunez*

*Estres handiz*

*Baldintza txarretan*

*En soledad*

*Denborarik gabe*

*Laguntza psikologiko faltarekin*

*Lasaitasunetik*

*Eguneko Zentroaren bidez*

